



# Ahozko euskal literatura: antologia bat

Juan Kruz Igerabide





# SARRERA

## ***Ezaugarri orokorrak***

Ahozko literaturaren ezaugarri nagusia ahoz transmititzea da, belaunaldiz belaunaldi, eta, hala, tradizio bat sortzea. Izan ere, tradizio horretan, piezak sortuz doaz, eta bat-bateko emanaldietan «eguneratzen» dituzte esatariek. W.J. Ong-ek edo P. Zumthor-ek ahozkotasan-mailak bereizten dituzte: bada oinarritzko ahozkotasan «garbi» bat, inoiz idatzizko testuekin harremanik izan ez duena: historiaurreko gizarteen adierazmoldea da, eta munduan oraintsu arte egoera horretan egon diren gizarteak ez dira bat eta bi, hala Afrikako oihanetan, nola Asiako, Amerikako edo Ozeaniakoetan. Bada bigarren mailako ahozkotasan bat ere, testu idatzien alboan agertzen dena; horixe gertatu da hizkuntza idatzia asmatu zenetik gaur arte. Testu idatzien eta ahozkoen arteko harremana oso estua izan da historian zehar, eta ahozko tradizioak eragin handia izan du literatura idatzian.

Ahozko tradizioan, berpiztu egiten dira historian zehar jaso diren ahozko testuak, kantatu edo kontatu egiten dira, eta, errepikaren errepikaz, eraldaketa txikiak izaten dituzte, ipuin zahar bat kontatzen den bakoitzean bezala. Horregatik, bertsolaritza eta pastoralak ez dira erabat tradizionalak, ahozkoak eta tradizio baten segida izanik ere emanaldi bakoitzean testu berriak sortzen baitira, testu idatziek bezala jokatzen baitute ahozko tradizioa erabiltzerakoan: sormenaren zerbitzuan, eta ez aurretik jasotakoa errepikatzeke helburuz.

Ahozko tradizioan, denbora biribilean gaude, historiaren sugeak bere isatsari hozka egin balio bezala. Tradizioaren iturriak gizakiaren imajinarioan daude; imajinario horrek bere esperientziak etengabe berregituratzen eta biziberritzen ditu, atzeraelikadura amaigabea. Euskal ahozko tradizioa ez da salbuespen prozesu ho-

rretan: euskara bitartekari harturik eta egituraren muinean bertan txertaturik, ahozko tradizioak iturri asko bildu ditu historian zehar, hala nola iberiarra, zelta, latinoa, arabiarra, hizkuntza erromantzeak, eta abar —abar horretan sartzen da, adibidez, ingelesaren eragina, Ternura joandako arrantzaleen ekarriaz edo Ipar Ameriketara joandako artzainen lekukotzaren bidez islaturikoa—. Euskal tradizioak, bada, iturri asko ditu nahasian, dagoen lekuan egonda igarobide izan baita menderen mendetan —Donejakue bideak, esate baterako, Erdi Aroan eta hurrengoetan ere ekarri handia egin zuen euskal tradizioa—. Euskal ahozko tradizioak europar enbor sendoa du oinarrian, ikertzaile askok argi antzeman dutenez —besteak beste, Maria Goiri mintegiak modu zabalean erakutsi zituen europar eraginak euskal baladetan.

Hitz gutxitan laburbildu dugu euskal tradizioaren osaera, eta hitz gutxitan laburbilduko tradizio horren ikerketa ere. Garibai eta enparauak hasi, eta kanpoko ikertzaileak (Humboldt, Webster...) zein etxeakoak (Urkijo, Azkue, Barandiaran, Mitxelena, Lekuona osaba-ilotak...) gure tradizioaren azterketa «unibertsalak» egiten saiatu dira, eta bide bat zabaldu dute, garai bakoitzeko gorabeheretatik harago.

Jarrai dezagun, ordea, tradizioaz mintzatzen; bi ezaugarri seinala daitezke oso modu orokorrean: biltegia eta erabilera. Biltegirik gabeko tradizio bat —memoriarik gabekoa, aingurarik gabekoa— berehala eramango luke globalizazioaren haize-zirimolak; tradizioa eta biltegia, hein batean, sinonimoak dira. Haatik, hondamendi bera gertatuko litzaioke biltegi eder horretako ateak itxirik leuzkakeen tradizioari: liburutegi ederrak bai, baina esataririk ez. Biltegi horrek bi alde ditu, beraz: biltegi bibliografikoa eta oroimeneko biltegi bizia.

Biltegi bibliografikoari dagokionez, ahozko euskal tradizioa folkloristek bildua dute, hein handi batean, gehienbat XX. mendearen hasieran; tradizioaren azken arrastoak bildu nahirik, Etniker, Labayru eta beste zenbait instituzioren lanek bide beretik jarraitu dute.

Garibaik eta gainerako kronistek hasitako lan hark jarraipena izan du, F. Michelen, Azkueren, Donostiaren, Lekuonaren, Barandiaranen, Mitxelenaren eta abarren bidetik, eta lan horren barruan bildurik geratu da corpus aski aberatsa, mitoz, elezaharrez, ipuinez eta poesiaz osatua; poesiaren barruan, baladak, maite-kantak, sehaska-kantak, ipuinak, igarkizunak, jolas-poemak, eguberrietakoak eta beste hainbat generotakoak agertzen dira; genero horien sailkapen zabal eta zehatz bat egiteke dago oraindik, nahiz eta badiren oinarritzko sailkapen batzuk biltzaileek berek edo ondorengo ikertzaileek eginak; Juan Mari Lekuonarena da osatuenetako bat, nahiz eta aski orokorra izan hori ere.

Orain arte egin diren biltegiari buruzko ikerketa orokorretatik zenbait puntu atera ditzakegu: sustrai antzinakoak dituen tradizio baten aurrean gaudela —nahiz eta materialik gehienak europar enbor orokorrekoak izan— eta Erdi Aroan garatu zela bereziki. Edukiei dagokienez, ikusten da kristautze sakona jasan dutela material askok, batik bat haur tradizioan, ipuin askoren geruzetan nabariak baitira iruditeria katolikoaren aztarnak.

Donejakue bideak eta lurrez zein itsasoz egiten zen merkataritzak Europako eta penintsulako korronteak sartu zituzten Euskal Herrian. Baladen arloan, gai beraren aldaerak Europa osoan hedaturik agertzen dira maiz; adibidez, *Brodutzen ari nintzen* baladarenak. XVII eta XVIII mendeetako maite-kanta zuberotarrei dagokienez, berriaz, Okzitaniako amodio gortesauaren tradizioaren aztarnak nabariak dira; esate baterako, *Xori erresinula* kantan, neguan agertzen ez den txoria, udan etorri eta kanpoan janari (amodio) bila dabilena; kantu horretan nabaria da amodioak dakarren kateatzearen eta askatasunaren arteko tenka, amodioaren xederan harrapatu ala Orhiko bortuaren gainetik hegan egiteko tenka; lotze-askatze gai hori modu zabalean landu zuten Proventzako trobadoreek ere.

Gure arbasoen tradizioa hilik dago, etenik, ahal izan den guztia liburuetan bildurik; hala ere, oraindik bizirik diraute ahozko zenbait

generok Euskal Herrian, nahiz eta garai bateko erreferentziak galdurik dauden. Bertsolaritzaren arrakastak ahozko kultura-zantzen egarria erakusten du; Eguberrietako kantak, Urte Zaharreko koplak, Santa Agedako koplak, inauterietako ospakizun zenbait, San Juan gaueko tradizioa, zenbait herritan egiten diren antzerki herrikoiak, pastoralak, maskaradak... ahozko tradizio zabalagoaren zantzu bi-ziak dira. Komunikabideen eraginez eta gizartearen aldaketen eraginez, nolabaiteko ahozko tradizioaren modernizatzea gertatzen ari da —abiada handi samarrean gertatu ere—, eta oztopatu egiten du nolabait tradizio-izaera. Adibidez, bertsolaritzaren arrakasta handia bertsolaritza bera ikuskizun mediatiko bilakatzen ari da eta bertso-antzerkera eta *show*-ra igarotzen da sarritan. Gainera, arrakasta horrek itzali egin ditu beste generoak: badirudi ahozko tradizioak bertsoa besterik ez duela gaur egun, bertsolariaren eremu dela tradizio guztia. Horrez gainera, bertsolaritzak erretorika propioa landu du, ahozko erretorikatik gero eta aldenduagoa, gero eta eskolatuagoa, erretorika landutik gero eta hurbilago dagoena.

Iparraldeko pastoralak ere sakon aldatu dira. Dena den, genero hori ere ahozkotasanaren eta idatzizkoaren arteko mugan dabil; ahozkotasanaren arloko gorputz-adierazpen estilizatuak ageri dira, baina testuak aski literarioak dira, idazle batek landu baititu, eta idatziaren ikuspegitik ahozkotik baino gehiago. Bestalde, pastorek badute ideologia kristau herrikoia eta manikeo garbia bultzatzeko joera, erlijioak eta ideologiak manipulaturiko ahozko tradizioaren eredu garbia: moroak/kristauak, sinestunak/ilustratuak, eta abar. Gaur egun joera hori asko apaldu bada ere, oraindik hor dago.

Ahozko tradizio zaharra berpizteko ahaleginean, hiru zutabe nagusi ageri dira gaur egun:

Alde batetik, familia dago. Betiko joana da baserriko tradizioa —sutondoan gertatzen zen hura, artazuriketakoa eta beste langintza batzuen ingurukoa, sutondoa eta langintza haiek galtzearekin batera—, baina oraindik ere berreskura genitzake pieza asko eta

asko gure seme-alaben ohe-ertzean eserita edo otorduaren inguruan. Leku horietan oraindik berbizi daiteke tradizioa; tradizioak leku bat behar du gerta dadin —lehen sutondoan zen, orain ohe-ertza edo sukaldeko mahaia—; hots, igorlearen eta hartzailearen arteko harremana gerta dadin.

Beste gune bat ikastetxea da. Ikastetxeak etxea ordezkatzeko du alor askotan, eta gizartea beste zenbaitetan; ikastetxean garatzen da ia erabat jolas-literatura guztia (garai batean kalean gertatzen zena).

Eta hirugarren zutabea literatura da. Literaturaren sorburuan tradizioa dago, hala ahozkoa nola landua. Literaturak ahozkoa berpizten lagun dezake, edo, alderantziz, itotzen. Kontua ez da beti esan dena eta kontatu izan dena hitzez hitz errepikatzea; gizarte bakoitzak bere irakurketa egiten dio tradizioari: interpretazio berriak eranstean dizkio, eta eraldatu egiten du. Baina, hori eginez, indar berria ematen dio, eta bizirik iraunarazten dio; horrela, bizirik dagoen tradizio bihurtzen da, eta ez kristalpean gordetako fosil eder bat.

Tradizioa berpizteko ahalegin horretan, bada arazo larri bat mendebaldeko gizartean, euskal gizartean areagotua: tradizioa zaharkiturik iritsi zaigu, eta askotan erlijioak eta ideologia atzerakoiak maneiatuak; horrez gainera, hizkuntza bera hilzorian egona da, debekaturik, baserrian eta sakristian ezkutaturik, eta, kolpean, sakon modernizatu behar izan du, balio moral, erlijioso eta gizarte-koak erabat aldatuz doazen garai azkar batean.

Jakina, egoera zaharretik gaurko egoerara etorri zaizkigun pieza horiek askotan arazo handiak eragiten dizkigute munduaren ikuspegiari dagokionez. Hala ere, kontua ez da tradizioko piezen baliu ideologikoak aldatzea: komisario literarioaren lanak ez dakar ezer onik, eta ez du lortzen zegoen bizi pixka hura ere zapuztea baino. Gauden egoeran, modernizatzea ez da eskema ideologiko atzerakoiak kendu eta egoera politikoari eta gizarteko injustiziei buruzko ikuspegi berriak sartzea. Benetako aldaketa prozesuak, ahozko li-

teraturan, «senaren» bidez gertatzen direla esan daiteke; hots, inkontzientearen eta barne-askatasunaren bidez. Tradizioa erabiltzea da kontua, harekin jolas egitea, aldaera literarioak zein ahozkoak asmatzea; hor, idazleen eta esatarien senak —ikasleen beren senak— adierazpen berriak, biziak eta oihartzun-indar handikoak, aterako ditu. Esate baterako rap-a errezitatzen dutenek, ahozko iturriak erabiltzen dituztenean, ahozko generoen biziberritze-mota bat eragiten dute. Ipuin-kontaktarekin ere gauza bera gertatzen da, bai baitago ipuinak entzuteko egarria —eta ez soilik haurren giroan; gazte eta helduen giroan ere bai—. Tradizioa erabili egin behar da, sentsibilitate literarioz erabili ere, horrela materiala «berez» eralda dadin, herriaren senaren bidez.

Ahozko tradizioan denbora biribilean gaudela adierazi dugu hasieran. Jo dezagun atzeraka zirkulu horretan. Non daude ahozko literaturaren iturriak? C.M. Bowra ikertzaileak, hogeigarren mendean, artean harrizko aroan bizi ziren tribu batzuk aztertu zituen, hala Amerikako hego nuturreko Suaren Lurraldekoak nola Afrikako eta Australiako zenbait giza talde, eta material esanguratsua bildu zuen. Bestalde, aski zabaldua dago onomatopeiak eta hitz-bikoizketak —euskaraz *m* bat erabiliz egiten ditugunak; adibidez, hasi-masi, atxia-motxia...— aztertu dituzten ikertzaileen artean, oso-oso zaharrak direlako ustea; gutxienez, hizkuntza indoeuroparrak Europan sartu aurreko garaietara jotzen dute, eta batzuen hipotesiak Paleolitoino ere iristen dira. Ipuinen alorrean ere, istorioen hezurdura sinbolikoa oso zaharra omen da, nekazari-kulturak sortu ziren garaia omen garamatza: Sumeriara, Indiara, Egiptora, Testamendu Zaharrera... Bada sinbolismoari buruzko liburu interesgarri bat, Schneider antropologoarena<sup>1</sup>, eta hark dio ezen guganaino Erdi Aroan zehar igaro den sinbolismoaren gorputza nekazari-kulturak sortu zirenean osatu zela, bai Mesopotamian, bai Egipton, bai Indian eta abar. Gi-

---

1 Schneider, M. (1998), *El origen musical de los animales-símbolos en la mitología y la escultura antiguas*, Madril, Siruela.



# Aurkibidea

<b>Sarrera</b> .....	5
<b>Antologia</b> .....	29
<b>Baladak</b> .....	31
Beotibarko gudua .....	31
Alostorrea .....	31
Aldaztorrea .....	32
Aramaioko kanta .....	34
Martin Bañezen eresia .....	34
Errodrigo Zaratekoaren eresia .....	35
Salinasko kontearen kanta .....	36
Arrasateren erreketeta .....	37
Milia Lasturkoaren eresia .....	40
Berreteretxeren kanthoria .....	42
<b>Maitte-baladak</b> .....	45
Maitasun-olerki bat .....	45
Andre Emili andre gora .....	45
Brodatzen ari nintzen .....	46
Arrosa xuriaren azpian .....	48

Atarratze jauregian .....	49
Egun bereko alarguntsa .....	51
Frantzie gortekoa .....	52
Lantainako alaba .....	55
Peru gurea .....	58
Intxauspeko alaba dendaria .....	59
Ana Juanixe .....	60
Leixibatxua .....	65
Ura isuririk .....	67
Ene mutilik ttipiena .....	68
Jaun Zuriano .....	69
Neska soldadua .....	72
Anderia gorarik .....	75
Goizian goiz jeikirik .....	77
Kaila kantuz .....	78
Lili bat ikusi dut .....	79
Maitiak bilhoa holli .....	80
Xori erresiñula .....	82
<b>Kopla, trikiti eta beste zenbait pieza .....</b>	<b>84</b>
Hor goian-goian izarra .....	84
Astotxo bat baneuko .....	84
Arrabako landea .....	84

Dingili dango, Marine .....	85
Kalien nago kalien .....	85
Izarretan den ederrena .....	85
Begira-begira nago .....	85
Begire nago, begire .....	86
Betelure, Betelure .....	86
Altza eder ur airian .....	86
Zeru altuan illargi eder .....	86
Ekhia yeikitzen denean .....	87
Logiro naiz ta logale .....	87
Arin-arin eiten dau .....	87
Bart arratsian .....	87
Tiriki tauki-tauki .....	88
Katalin txiki-txiki .....	88
Negar ta negar .....	88
Sagarra lore-lore .....	89
Txantxirurin kamino .....	89
Txori errexinuletak .....	89
Txori papogorriak .....	90
Txoriñoak kaiolan .....	90
Barda amets egin dit .....	91
Danbore berri berria .....	91
Bentara noa .....	91

Hiru andrek, bi amandrek .....	92
Txuriak eta bel-beltxak .....	92
Xurian, xurian .....	93
Umore ederrian .....	94
Urrundik ikusten dut .....	94
Yaiki, yaiki, Maria .....	94
Zarpazar, eztarriya garbi .....	95
Zertako esango degu .....	95
Ai, mutil kopetilun .....	95
Aiko Juaniko Olabarriko .....	96
Aita nuen saltzaile .....	96
Aitak artajorrara .....	97
Altuan San Bernabe.....	97
Arta jorrara noa .....	97
Altzola goiti dago .....	98
Ana ta Joakin .....	98
O, Pello, Pello .....	99
Gezurak, lukainkak .....	100
Aldrebeskeriak .....	101
Damukortan etxetzea .....	102
Kañonazoak .....	103
Atzo goizean goiz yagi nintzan .....	104
Bazterretik bazterrera .....	104

BuhamEEK badakite .....	105
Bolon-bolon petrala .....	105
Hemezortzi serore .....	106
Gan nintzen baratzera .....	107
Agur bat .....	107
Beste agur bat .....	108
Despedidakoak .....	108
Penak .....	109
<b>Atsotitzak</b> .....	110
<b>Igarkizunak</b> .....	114
<b>Ahozko tradizioko zenbait elezahar</b> .....	116
Ama Lur .....	116
Mari jainkosa nagusia .....	116
Jaun Zuria .....	118
Jentilen kontu batzuk .....	119
Basajaun eta Basandereren sekretu batzuk .....	120
Laminak direla eta .....	125
Mairuaren leizea .....	129
Ehiztari atsekabetua .....	130
Arrabako usoa .....	131

Bi arrosa .....	131
Aztikeria .....	132
Tartaloren pasadizo batzuk .....	132
Sorginen gorabeherak .....	142
Herio eta ikazkina .....	146
Herensugearen triskantzak .....	147
Osineko basiliskoa .....	152
Gauekoak .....	154
Ondarroako Leokadi .....	154
Izugarrikeriak .....	155
<b>Bibliografia baterako erreferentzia zenbait .....</b>	<b>157</b>